

Con un apeteu saludu &

Bernardo de Mesanza Ruiz de Salas

Ingeniero-Director de ~~Agricultura y Ganadería~~ de la Diputación Foral de Alava



Eusko - Basoen Aldezko Alkartasuna

Cooperativa Vasca Forestal (COVAFOR)



LAGUN MAITEA:

Illa onen 9'gn. eratu da EUSKO-BASOEN ALDEZKO ALKARTASUNA, bere lenengo Bazkun-Zuzendaritza'gaz.

EUSKO-BASOEN ALDEZKO ALKARTASUN au legezkoa da, ta berea daben izateagaz, bata-bestearen artu-emonen bidez, bazkide guztien eta bakotxaren ondasunen alde yokatuko dau, bere asmoak aurrera eroateko, Agintarien laguntasuna lortuten aleginduta. Bere asmoak onexek dira:

- a) Alkartasunean dagozanen ondasunak aldeztu saldu-erosien neurria izentauta.
- b) Petxu edo contribuziñoak gitxiagotutea.
- c) Baso-bideak egitea.
- d) Baso-ugazaben artean baso-suak galerazo ta amatetako bideak erabagi.
- e) Basoak barriztetako yakin-bideak bazkideai erreztu, baita euren obariek geyagotu.
- f) Azi ta landararik onenak eskuratutea ta abar...

Asmo onein artean lenengo aurrera eroan bear doguna, baso-gayak sal-neurri edo prezio ohea egin dayen alegintzea izango da irabazi geyago euki daigun.

Asmo au albait arifien lortuten aleginduko gara, bazkideak egur saltzean oin baño irabizi geyago izan dagien.

Baita Alkartasunaren asmoetariko bat da, bazkideai lagundutea, beren-beregiko beargin taldeak euki dayezan zeregin-au euren kontura artu gura ezpadabe.

Lenengo asmoak, gura dogun lez, ondo urten dagienean, aldi egokia izango dogu astiro astiro, burua austeko bildur barik Alkartasuneko beste asmoak aurrera eroateko.

Baña asmo oneik ondo betetako bear-bearreko da baso-yaube guztiak bat egitea Alkartasun barri onetan sartuta, asmuok eurai ondo yatorkiezanak dira-ta.

Gure burubidea auxe da ba: ALKARTU, ALKARTU, ALKARTU, alkartasunak indarra dakar-ta. Banaka baso-yaube andiena be txiki da, alkartuta barriz gure asmoak azkeneraño beteko doguz.

Alkartasun onetan sartzeko, guztiak bardin, 250 peseta ordaindu bearoko dabe bakotxak, eta gero nozbait urten gura ba'dabe, euneko 90 biurtuko yake.

Gaurko egunean alde guztietan besterik ez da entzuten, zerbait egin bear danean alkartasuna bear-bearrekoa dala baño, eta geure begiz ikusten dogu alkartasunak on andiak ekarten dauzala. España'ko alderdi batzuetan basoaldezko alkartasunetan aurrea artu dauskuela ikusten dogu, eta beste batzuetan geuk zer egingo ete dogun begira dagozala, eurak be beste ainbeste egiteko. Uste dogu geureagaz urtengo dogula, albait baso-yaube geyen geure artean batuten ba'gara.

Alan ba, gure basoen aldezko Alkartasun au ez doa iñoren kaltez, bere susterra gaur eguneko alkartasun gogoari yarraitutean dauko-ta.

Era guztietako laguntasuna pozik artuko dogu, gure asmoa, guztioi yoakuzan ondasunen alde, adizkidetasunean, yokatutea da-ta.

Baso-yaube laguna! Ondiño zure izena emon ezpadozu, albait lasterren emon EUSKO-BASOEN ALDZKO ALKARTASUN oneri.

Bilbo'n 1963'ko Zemendian.

BAZKINTZA ZUZENDARIAK.